

noaua

**NOAUA! Kulturaldia
asteburu honetan
abiatuko da**

**Olatz Lasagabaster
eta Patxi Uranga
Martuteneko espetxera
hurbildu dituzte**

Ostalaritza sektorea kolokan da

"BASOAREN ETORKIZUNA. PINUDIAREN GEROA ETA BASOGINTZA EREDU BERRIAK"

Basogintzaren ibilbide historikoari errepaso bat emanez, gaur egun Euskal Herriko basoek bizi duten egoera ulertzen salatuko gara, krisi honen oinarrien inguruko analisi bat eginez. Horretarako, zenbait galdera mahaigaineratuko ditugu: nolakoa izan da gurean basogintzaren bilakaera? zer egin da orain arte? zertan dihardugu orain? eta zer egin dezakegu hemendik aurrera? Basogintzak etorkizunik baduela erakutsi nahi dugu; badela esperantzarik, eta denoi dagokigula, hemen eta orain, ibilbide berria marraztea.

Data: Azaroak 18, asteazkena ,18:30.
Tokia: Potxoenea Kultur Etxea
Hizlariak: Inaki Etxebeste Larrañaga eta Markel Arriolabengoa Martiarena (Errez Koop. Elk. Txikia)

Aldez aurretik izena eman behar da. Ziurtagiria egingo da.

Alkartasuna Kooperatiba
Atallu industrialdea 26, Usurbil
943 361 114 - 630 938 027
alkartasuna@usurbil.com



FINKA ADMINISTRATZAILEA

AHOLKULARITZA ZERBITZUA

INMOBILIARIA

ASEGURUAK

943 573 693

Eusko Gudari 35, ORIO



OPARITU ILUNABARRIK GOXOENA

SunsetBastian

www.sunsetbastian.eus

reservas@sunsetbastian.eus



[@ssunsetbastian](https://www.instagram.com/ssunsetbastian)

Albisteak iruditzen

Usurbilgo Lanbide Eskolaren berri emango dute 'Teknopolis' telebista saioan

Elhuyarrekoak Usurbilgo Lanbide Eskolan izan dira *Teknopolis* telebista saioaren atal bat grabatzen. Laster emango dute ETB1en.

“Eskolan berrikuntza nola bultzatzen dugun aztertzeraz etorri dira”, adierazi digute Usurbilgo Lanbide Eskolako arduradunek. “Ideia onak eta lan ildoak nola identifikatu, garatu eta zabaltzen ditugun azaldu diegu”. Tartean, *Long Life Batteries* proiektuaren berri eman zieten ETB1eko *Teknopolis* saioaren egileei. “Proiektu honen bitartez, autoen bateriei bigarren bizitza bat nola eman aztertzen ari gara, ekonomia zirkularra bultzatuz. Hau da, normalean Garbigunera botako lirakeen autoen bateriak, etxebizitzetan sortutako ener-



Abenduan eskainiko dute Lanbide Eskolari buruzko erreportajea *Teknopolis* telebista saioan.

gia gordetzeko balio duten aztertuko dugu San Viator eta Don Bosco esko-

lekin batera, eta Cegasa enpresarekin elkarlanean”.

Laburrean

26 kasu azaroko lehen astean

Urria osoan 72 Covid-19 kasu atzeman ondoren, azaroaren 1etik 8ra beste 26 dektatu zituen Osasun Sailak Usurbilen. Martxoaz geroztik 174 kasu eta hildako bat eragin du covid19-ak udalerrri honetan.

Gripearen aurkako txertaketa

Urriaren 13tik hasiak dira jartzen gripearen aurkako txertoa, bereziki arrisku taldeei. Urriaren 31tik aurrera herritar orori. Aurrez hitzordua eskatu anbulatorioan: 943 362 013.

Berrogeialdian daudenentzat oharra

Udalak atez ateko sistema egokitu du Covid-19a izan edo berrogeialdian dauden etxeetarako. Kasu horietan, berebiziko garrantzia du Atez Ateko bulegora deitzeak: 900 776 776.

noa.ua

Kultur Elkarte
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 ||| elkarte@noa.ua.eus ||| www.noa.ua.eus
Jendaurrako ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkariko koordinatzailea:
Imanol Ubeda.
Idazkaria: Alaitz Aizpurua.
Disenua: Erroit S. L.

Erredakzio kontseilua:
Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noa.ua.eus

Banaketa: Iñaki Irazusta,
Iban Maritxalar.
Tirada: 2.930 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Harremanetarako:
erredakzioa@noa.ua.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Euskal presoak
Euskal Herrira!



Luis Aranalde

“Fratelli tutti”

Aita Santuaren entziklikek latinezko tituluak izan ohi dituzte, baina Frantzisko Aita Santuak zabaldu berri duenak italieraz du izenburua. Badakizue, bera jesuita izan arren Asisko San Frantzisko miresten duela, eta haren idatzi batetik jaso ditu “Fratelli tutti” hitzak. Entziklikaren ideia nagusia: gizatiar guztiok senide gara. Senidetasun unibertsala da gure bokazioa eta denon eginkizuna da anaitasun hori gauzatzea, eraikitzea. Eginkizun ederra, helburu bikaina, elkartasuna izanik tresna egokiena ideia hori aurrera eramateko. Aditu batzuen esanetan Elizak argitaratu duen entziklikarik sozialena da hau.

San Frantziskoren hilio biaren alboan sinatu zuen dokumentua. Horrela adierazi nahi zuen santu horren filosofia eta bizitzeko estiloa zituela gidari. Anekdotak polit bat ere kontatzen du Aita Santuak: S. Frantzisko joan da Egiptora Al Kalil sultana ikustera eta honek galdetzen dio: “zergatik zuek kristauok maitasunaz besterik ez duzue hitz egiten eta aldi berean gerrak eragin nonahi eta noiznahi?”. S. Frantziskoren erantzuna: “Maitasuna (Jesus,



“Frantzisko Aita Santuaren Entziklika berriaren ideia nagusia hau da: gizatiar guztiok senide gara”.

LUIS ARANALDE

“Nazioarteko senidetasuna lantzea izanik ideia nagusia, gaurkotasun handia duten gai batzuk ere jorrotzen ditu. Politika ekonomiko neoliberalak, besteak beste”

alegia) ez delako maitatua, Jauna”. Gurutzaden garaia zen eta, beraz, inkoherentzia totala kristau munduan.

Sarrera bat eta 7 kapitulu ditu idazkiak. Nazioarteko senidetasuna lantzea izanik ideia nagusia, gaurkotasun handia duten gai batzuk ere jorrotzen ditu, besteak beste gerra justua eta politika ekonomiko neoliberalak. Gerra justua ezin da gehiago onartu, nahiz

eta Eliza katolikoaren dotrinan justifikatzen zen zenbait egoeratan. Giza garapen integrala nahi badugu, gure eginkizuna da saihestea nazioarteko gerra aukera guztiak. “Gehiago ez gerrarik”, dio. Eta politika ekonomiko neoliberalari buruz, Aita Santuak ondo daki ze kalte ekarri dituen eta zenbateraino eragin dituen ezberdintasun erraldoiak, gutxi batzuk izugarri aberastuz. Horregatik kritika zorrotza egiten dio Frantziskok arlo neoliberalari. Sistema finantzarioak eredu berri bat behar du, dimentsio soziala txertatu behar zaio. Merkatuaren ekonomia soziala bultzatu behar da. Globalizazioak gerturatu gaitu, baina senide bihurtu ez.

Borondate oneko pertsona orori zuzenduta dagoen idazki honek gailurra jotzen du

samariar onaren (Lukas 10, 25-37, irakurri pasarte hau, bitxi bat da) parabola aztertzen duenean. Zein dago nire beharrea ni bere gertuko bihurtu nadin eta lagun diezaizkidan? Sekulako egurra ematen die apaizei eta santu-jaleei. Erorita dagoenarengana hurbiltzea eta berori laguntzea da anaitasun unibertsalaren sekretua. Horretan saiatu behar luke, dio, politika orok ere. Politika da, herrigintzan saiatzen denean (hori da greziarren definizioa politikarena), maitatzeko modurik ederrenetarikoa.

Pentsatzaile katolikoetan bakarrik ez da oinarritzen Aita Santua gogoeta sakon honetan. Gai hau gauzatzeke eredu gisa hartzen ditu Gandhi, M.L. King, Desmond Tutu, Charles de Foucauld.

Duela gutxi Anjel Lertxundik zioen: “Oraintsu berrogei urte egundoko sekularizazio prozesua izan genuen. Bat-batean, erreferente espiritualen faltan geratu ginen eta espiritualak diodanean, geure barrua aberastu, gizatiarra goak izaten lagunduko diguten erreferenteez ari naiz”. Nire ustez, Aita Santua dugu une honetan erreferente espiritual horietako bat entziklika bikain honekin. Bide on eta luze “Fratelli tutti”ri!

Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhua Azpirotz Eizmendi

Ugaitz Agirre Zapirain

Luis Aranalde

Udarregi Ikastolako lan eskaintzak

Lan deialdiok plazaratu ditugu Udarregi Ikastolak egunotan:

■ DBHn ingeles arloko aldi baterako ordezkapena betetzeko irakasle bat. Aurkeztu beharre-

ko dokumentazioa: Ingelesko lizentziatura eta Gaitasun Pedagogikoko Agiria.

■ Gizarte Zientziak ingelesez emateko 6 orduko lanaldia betetzeko irakaslea.

Aurkeztu beharreko dokumen-

tazioa: Gizarte Zientzian lizentziaduna, Ingelesko titulua (Advanced edo baliokidea) eta Gaitasun Pedagogikoko Agiria.

■ DBHn musika arloko aldi baterako ordezkapena betetzeko irakaslea.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa: goi-mailako musika titulua eta gaitasun pedagogikoko agiria.

Informazio gehiagorako:
udarregi.eus /943 36 12 16

Zubietako espetxea 2021ean hasi daitezke eraikitzen

Lanak benetan hasi arte ezin jakin hala izango den; baina oraingoan badirudi baietz. 2021eko bigarren hiruhilekoan Zubietako espetxea eraikitzen hasi daitezke. Hala adierazi zion azaroaren 3an Madrilgo Senatua osoko bilkuran, Espainiako Gobernuko barne ministro Fernando Grande-Marlaskak, EAJ-k aipatu erakunde horretan duen senatari Maribel Vaquero Monterok eginiko galderari. Madrilak Martuteneko espetxea noiz ixtea aurreikusten duen jakin nahi zuten jeltzaleek.

Zuzen erantzun zion Grande-Marlaskak. “Espainiako Gobernuak Martuteneko espetxea, zentro berriaren (Zubietakoari buruz ari zen) lanak amaitu ostean itxiko du”. Zubietan, erraustegitik hurbil kokatuko duten kartzela berriaren ezaugarriak ere zehaztu zituen barne ministroak. 41 milioi euro pasatxoko lizitazio aurrekontua du. 232 ziega bikoitz izango ditu, efizientzia teknologikoan oinarrituko da,



Zubietako espetxe berriaren eraikitze lanak 22 hilabetez luzatuko direla aurreikusi du Espainiako Gobernuak.

ESPETXE POLITIKA

“Zubietako zentro berriaren lanak amaitu ondoren itxiko dute Martuteneko espetxea”

“energia eta ura bezalako baliabideen erabileran”, energia berriztagarriak sustatzearekin batera. Espetxe berriaren diseinuak bizigarritasuna eta birgizarteratze programak izango ditu ardatz.

Ministroen Kontseiluak asteotan onar dezake

Aipatu moduan, atzerapen berririk ez bada, 2021eko 2. hiruhilekoan abiarazi nahi dituzte Zubietako espetxe berriaren

eraikitze lanak. 22 hilabetez luzatuko direla aurreikusten du Espainiako Gobernuak. Proiektu hau gauzatzeko urrats berriak eman asmo dituztela ere aurreratu zuten hilaren 3an Madrilgo Senatuan, barne ministroak. “Ministroen Kontseiluak, kontratazio espeditentia azarora honetan behin betiko onartzea eta jarduketarekin ahalik eta lasterren hastea espero dugu”.

“Titular eta promesa asko baina galdera bat erantzuteko, Martuteneko espetxea noiz itxiko duzuen behin betiko”, erantzun zion EAJ-ren senatari Maribel Vaquerok. Proiektua gauzatu zela esan bai, baina hamarkada oso bat atzeratu zela gogorarazi zion barne ministroari.

“Argia ikusten ez duen proiektua izaten segitzen du” Martuteneko espetxea ixteko beharraz ohartarazi zuten EAJ-k Espainiako Gobernuko ordezkaria. “Zuk dakizun bezala, Martuteneko espetxeak gabezia garrantzitsuak ditu egitura eta funtzionalitate aldetik, zigorraren birgizarteratzea galarazten duena”. 2018an Espainiako Gobernuak ere lantzen ari zen arlo honetako plan berri batek, 2006-12 urte artekoak bezala Martuteneko kartzelaren itxiera aurreikusten zuela. Azken lau urteotan, 2011ko estatuko aurrekontuetan bezala egitasmo honi bideratzeko partidak txertatu zirela gogorarazi zuten EAJ-k. Egoeraren larritasuna ikusita ere, ezer gutxi egin dela aurpegiratu zion Espainiako Gobernuko ordezkariari. “Argia ikusten ez duen proiektua izaten segitzen du”.

Horrek duen arriskuarekin. Uholdeak izateko arrisku betean den irla isolatu batean geratu da Martuteneko espetxea EAJ-ren esanetan. Errealitate horren berriz izan badutela erantzun zion barne ministroak.

Ika-mika

Olatz eta Patxiren egoeran aldaketa nabarmenak

Aspaldiko partez berri on batzuk izan genituen joan den astean. Espetxeetako Zuzendaritzak behingoz gradu aldaketa onartu zion Olatz Lasagabaster eta Patxi Uranga herriko presoiei eta baita Martuteneko espetxera lekualdatuak izatea agindu ere. Ez hori bakarrik; horren ondorioz, lehendik baimendua zuten egun batzuetarako irteera baimenak gauzatzea erabaki zuten Aranjuezeko agintaritzak halako batean. Dena arrapaladan iritsi zen.

Hala, ostiralean (azaroak 6) familia Madrilgo espetxera joan zen bien eta beraiekin zegoen Maddi alabaren bila. Orduak pasa zituzten atean noiz aterako

zain baina, azkenean, denok ikusi ahal izan dugun argazki hunkigarria egia bilakatu zen. Hilabeteak ikusi gabe zuten Xuarekin familia osatua, laurak irrifar erraldoi batean batuta.

Larunbateko ordu txikitan iritsi ziren Usurbilera. Asteburu oso berezia igaro dute elkarrekin eta irteera baimena amaituta, biek ala biek astelehen goizean Martuteneko espetxean aurkeztu zuten bere burua. Olatzi, Maddi haurtxoarekin bertan egoteko baldintzarik ezean, kanpoan egoteko baimena luzatu zioten ostegunera arte. Orduan, erabaki finkoago bat hartu beharko dute bere egoeraz. Patxik berriz, astelehenetik ostegunera lotara

joan beharko du espetxera.

Urteak dira herriko erakunde, talde, eragile eta herritar andana Olatz eta Patxi espetxe legeria arrunta aplikatzea exijitzen dutela. Hamaika ahaleginen ostean, beren kasuan bederen, gauzatzeko hasi da behingoz. Espero dezagun bide hori urratzen segitzea eta laster biek ala biek baldintzapeko askatasunean gure artean izatea.

Gertaera honek sekulako poza eragin du Usurbilen eta, zer esanik, ez bi presoeren familia eta lagunaren artean. Alta, alferrikako sufrikarioa eten eta sentimendu berbera errepikatzea nahi dugu, behar dugu hobe esanda, gainerako euskal preso

politiko guztien kasuan. Horregatik eta horretarako lehenik eta behin preso gaixo, adin handikoei eta baldintzapean berehala kaleratuak izan daitezkeenei legeria arrunta aplikatzea exijitzen jarraituko dugu. Euskal preso guzti-guztiak behin betiko etxeratuak izateko lehen urrats bezala.

Etxean aske eta bizirik nahi ditugulako.

Usurbilen Nahi Ditugu! elkarteak, Usurbilgo Sare.

Oharra familiaren partetik: Esker ona adierazi nahi die beren interesa eta zoria helarazi dieten herritar guztiei.

Martin Villa, pertsona “non grata” Usurbilen

Errepresio frankistaren egile nagusietako bat 60. eta 70. hamarkadetan, 1975-79 ministro zela “erreprezio odoltsuaren erantzule izan zen, krimen larriak gauzatu baitziren: Gasteiz (1976), amnistiaren aldeko astea edota 1978ko Sanferminak” adibide gisa har daitezke. Hala dio urriaren 29ko udalbatzarrean onartu zuten mozioak. Egun inputatua dago Villa, “gizateriaren aurkako krimenak egotzita”. Usurbilen pertsona “non grata” izendatzea erabaki du udalbatzak.

Horrekin batera, Argentinako agintari judizialek bere estradizioa eskatu zioten Espainiako Gobernuari, baina Ministroen Kontseiluak ukatu egin zuen eskaera. Erabaki hura bertan behera uztea eskatzen dio duela bi aste onarturiko mozioak. Horrez gain, frankismo nahiz “trantsizio” deituriko garaietan “gauzatutako gizateriaren aurkako krimenak ikertu eta epaitzea, bereziki Martin Villaren erantzunkizuna izan daitezkeenak”.

Argentinan Maria Servini epaileari “frankismoko krimenen zigorgabetasunarekin amaitzeko egiten ari den lana eskertu, Gobernu Espainiarrak jarritako oztopo guztien ondorio, presidente izandakoek eta beste zenbait ordezkari gutun bidez Martin Villari eman babesa salatu eta Argentinako epaitegia egiten ari den lana-



Urriaren 29ko udalbatzarrean onartu zuten mozioa.

ARGENTINAN EPAITUA

Egun inputatua dago Villa, “gizateriaren aurkako krimenak egotzita”

ren jarraitzea eskatu” ere galdegiten du testuak.

“Ez da inor kondenatua izan”

Mozioaren alde bozkatu zuen EHBilduk, PSE eta EAJ-ren udal ordezkariak abstenitu ziren. EAJ-tik frankismo garaian nahiz gerora gizateriaren aurkako krimenengatik kondenatuak izan direnak ere pertsona “non grata” izendatzearen aipamena mozioan txertatzea proposatu zuen. Baina eskaera ez zen onartua izan. “Ez da halakorik gertatu tamalez.

Ez da inor kondenatua izan”, zioen alkate Agurtzane Solaberrietak. Halakorik gertatuko balitz bai txertatuko litzateke esaldi hau. Inpunitate hori da hain zuzen mozio honekin salatu nahi zutena. Baina Villaren kasuak “bide bat irekitzea espero” dutela aipatu zuen.

PSE-ren udal ordezkari Patxi Suarezek mozioarekiko adostasuna agertu zuen, ez ordea testuaren dialektikarekin. Abstenitzea erabaki zuen. Gizateriaren aurkako delitu mota asko daudela gogorarazi zuen eta “pertsona asko delitu mota hori burutu duena”. Baina ez zuela proposatuko pertsona “non grata” izendatzea haiek guztiak. Bestela, “ez dugu bukatuko inoiz. Interesatuagoa nago benetako elkarbizitzan, normalkuntza lortzean”.

Udala eta Eusko Jaurlaritzaren hitzarmena

Eusko Jaurlaritzaren hainbat tramite udaletxetik bertatik bideratzeko aukera dago. Orain arte egin duten jarduerak hainbat biltzeko urratsa eman zuten udalbatzak urriaren 29ko osoko bilkuran aho batez hartu zuten erabakietako batekin. Kasu horietan ere “gu izatea erregistro lehiatila” nahi dute, udalbatzarrean aipatu zuten bezala. Orain arte eskaini izan duten aukera hori hitzarmen batean biltzea aho batez onartu zuten udal ordezkari guztiek.

Erosketa-bonuak eskuragarri

Garai zailak bizi dituen herri merkataritza eta ostalaritza laguntzeko “Gertuago” egitasmoaren bigarren faseko erosketa-bonuak ez dira guztiz agortu. Izen bereko atarian, gertuago.eus web orrialdean sartzan bazarete, hainbat detadako bonu eskuratzeko auke-

ra izango duzue. Bonua salgai jarri duen denda horretan xahutu beharko duzue gero. %20ko deskontua aplikatuko zaizue, falta den kopurua Udalak jarriko du. Hurbilago Elkarrekin eta herriko dendari eta ostalariekin batera sustatu du Gertuago egitasmoa.

Gure Eskuren mahaia

Larunbat honetan, 12:30-14:00 artean, Usurbilgo frontoi inguruan egongo dira. Batetik, Euskal Herri osoan abian duten erreferendumaren aldeko sinadurak batzeko; “Hamaika Gara” ekimenaren alde sinatzeko, alegia. Horrekin batera, eta urte amaiera ate joka

dugun honetan, *Tripontzia Zozketa* ere antolatu du Gure Eskuk. 52.000 euro jokoan jarriko dituen zozketarako boletok saltzen ariko dira larunbat eguerdian, mahai horretan bertan. Informazio gehiago: tripontzia.eus/hamaikagara.eus/gureesku.eus

Xiberoko ikastolen aldeko otarrak eskuragarri

Xiberoko ikastolak lagun-
du eta bertako ekoiz-
pena ezagutarazi eta
dastatzeko moduan jartzen di-
gun elkartasun ekimena abian
da berriz Euskal Herriko txoko
ezberdinetan. Nafartarrak Tal-
dekoen eskutik martxan da
Usurbilen. Urte amaieran jaso
ahalko dituzuen tokiko pro-
dutu goxoez hornituriko 3
otar ezberdin eskatzeko auke-
ra duzue abenduaren 1era arte.

Zuberoako ikastolak lagun-
tzearen garrantzia nabarmen-
tzen dute ekimen honen sus-
tatzailerek. "Ipar Euskal Herrian
euskarak ez du babes ofizialik.
Euskara hizkuntza guttiagotua
da gure lurraldean. Euskararen
etxeko transmisioa Zuberoan
eteten ari den heinean, Ikasto-
lek dute euskararen transmisioa
bermatzen". Transmisio lan horri
segida emateko elkartasuna
ezinbeskotzat jotzen dute, are
gehiago covid19-ak astindu gai-
tuen urte honetan. "Zuberoan
Ikastolak garatzen eta indar-
tzen jarraitzeko Euskal Herri
osoko elkartasuna ezinbestekoa
zaigu. Gaurko egoera berezian,
Covid-19a dela eta, oraino ge-
hiago. Azken urte honetan,
diru sartze ekimen guztiak
ezeztatuak izan dira. Aurtengo
saski salmenta hau diru sartze
bakarra izanen da, oso behar-
rezkoa guretzako", ohartarazi
dute.

Eskabideak ikaskoli.eus ata-



Eskabideak ikaskoli.eus atarian bideratu ditzakezue. NOAUA! Kultur Elkartearen egoitzan bestela, edo 943 360 321 telefono zenbakira deituta.

ZUBEROAKO IKASTOLEN ALDEKO SASKIAK

"Hiru otar ezberdin eskatzeko aukera duzue abenduaren 1era arte"

rian bideratu ditzakezue edo
bestela NOAUA! Kultur Elkar-
tearen egoitzan edo 943 360
321 telefono zenbakira deituta.
Covid19-ak baldintza dezake
ekimena. Gogoan izan, aben-
duaren hasierara arte konfina-
mendua ezarri dute Ipar Eus-
kal Herri osoan eta frantziar
estatuan. Momentuz, kanpaina
honen sustatzaileen esanetan
abenduaren 10 eta 11ko aste-
buruan banatu asmo dituzte
saskiak. Nahiz ohartarazi dute-
nez, "egun horiek alda daitezke
itxialdiak luzatuak baldin badi-
ra". Kasu horretan, hartuema-
netan jarriko liriteke kanpaina
hau bideratzen ari diren talde-
kin. "Abisatuko zaituztegu. Zer
nahi izanik, dirua itzultzeko ere
prestaturik gara".

Saskiak

Ahüzki

- Prezioa: 40 euro.
- Produktuak: xerriki patea (190 g), ahate gibel berrosatua (125 g), ezti (500 g), bixkotx poltsa artisanala (150 g), ardi gazna (550 g).

Irati

- Prezioa: 55 euro.
- Produktuak: xerriki pate (190 g), ahate gibel berrosatua (125 g), axoa: xahalki xehatua saltsan (640 g), "Ezti Olha" ezti (edo hau faltatzen balitz, "Bortüko" ezti-500 g), bixkotx poltsa artisanala (150 g), ardi gazna (550 g).

Orhi

- Prezioa: 70 euro.
- Produktuak: ahate gibela (200 g), bixkotx gatzatuak (80 g), lukainka idorra (230 g), azafrai erreximenta (edo hau faltatzen balitz, "Bortüko" ezti-250 ml), gazna (1 kg).

Errigoraren udazkeneko kanpaina amaitzear da

Azaroaren 12ra arte eska di-
tzakezue Errigoraren udazke-
neko "Nafar hegoaldeko uzta
euskarari puzka" kanpainako
saskiak; errigora.eus atarian
edo NOAUA! K.E.-ren egoi-
tzan. Nafarroa hegoaldean
ekoiztako produktuak saldua

jasotako laguntzaren laurdena
bertako euskalgintza susper-
tzera bideratuko du Errigorak.

Hiru saski daude aukeran:

Saski berdea (65 euro), saski
beltza (55 euro) eta saski zuria
(75 euro).

Epea: azaroak 12

- Eskabideak non: errigora.eus ataritik edota NOAUA! Kultur Elkartearen egoitzan.
- Produktuen banaketa: azaroaren 26an eta 27an, 9:00-14:00 artean NOAUA!n.
- Informazioa: errigora.eus

Datozen parte hartze saioen hitzorduak

Hiru parte hartze prozesu
abian ditu Usurbilgo Uda-
lak; bat Zubietako etorkizu-
na marrazteko. Beste biak
Kalezarko Pelaiorena bar-
netik definitzeko. Segidan,
datorren asterako iragarriak
dauden parte hartze saioen
berri.

"Guk Zubietan zer?", Hirigintza eta etxebizitza Azaroak 17 asteartea:

- Mahai ingurua.

Azaroak 19 osteguna:

- Lan saioa.
- Saioren ordutegia eta le-
kua: 18:30-20:00, Zubietako
frontoia.
- Aurrez izen eman helbide
honetan:
hirigintza@usurbil.eus

Pelaiorena

Azaroak 12, osteguna:

- 18:00-20:30 Kalezartarren
auzo-ekipamenduari lotu-
tako bigarren gogoeta saioa
Haur Eskolan.
- Gaia: "Auzotarren behar-
rak asetzeko espazioak".

- Izena ematea aurrez:
parekidetasuna1@usurbil.eus
943 377 110

Gozogintza tailerra

Santuenean

Santuenea Kultur Elkartek
antolatuta azaroaren 13an eta
20an 18:00etan auzo elkar-
tearen plaza ondoko egoi-
tzan. Izena hilaren 6a baino lehen
eman behar zen bideotatik:
619 791 170 / 670 037 731



Ostiral honetan hasiko da Santueneko auzo elkartean.

Olatz Lasagabaster eta Patxi Uranga

Martuteneko espetxera hurbildu dituzte

2009az geroztik lehen aldiz asteburu oso berezia bizi izan dute Olatz Lasagabaster eta Patxi Uranga herrikideek, 3. gradua aplikatu eta Madrilgo Aranjuezko espetxetik Martutenekora lekuz aldatu ostean.

Berriak hain zuzen arrapaldan heldu ziren iragan astean Aranjuezko espetxetik. As-teazkenean Espetxe Erakundeetako Idazkaritza Orokorrak Olatz Lasagabaster eta Patxi Uranga herrikideei hirugarren gradua aplikatu eta Martuteneko kartzelara lekuz aldatuko zituztela jakinarazi zuen. Ostegunean lehen irteera baimena eman zieten, Usurbilen Nahi Ditugu bilgunetik NOAUA!ri berri eman ziotenez, ostiral eguerditik astelehenera arte. Senideak bertara joatekotan ziren, Olatzek eta Patxik Usurbila etorri eta azaroaren 10ean berriz Aranjuezera bueltan joateko denbora gutxi izango zutelakoan, eta gainera kontuan izan, Covid-19a tarteko, mugikortasun neurriak ere oztopo bilaka zitezkeen.

Egoera zeharo aldatu zen ordean ostiral goizean; Usurbilen Nahi Ditugu bilgunetik jakinarazi zuten, “azkenean Usurbilera datoz gaur irteera baimenarekin”. Eta bazen beste nobedade bat ere; aipatu moduan asteburuko baimena zuten espetxetik kanpo egoteko. Epe hau igarota Aranjuezera itzuli beharrik ez zuten izango, “Martutenera baizik”, Usurbilen Nahi Ditugu bilgunetik aditzera eman zuten.

Honenbestez, Olatz Lasagabaster eta Patxi Urangaren hurbilketa ostiralean bertan gauzatu zen. “Familia Madrilgo espetxera joan zen bien eta beraiekin zegoen Maddi alabaren bila. Orduak pasa zituzten



Espetxetik kanpo asteburuko baimenaz gozatzeko aukera izan zuten aurreko astean.

BAIMENA

“Alaba txikiarekin Martutenen egoteko baldintza egokirik ez da eta Olatz Lasagabasterri espetxetik kanpo egoteko baimena luzatu diote”

atean noiz aterako zain baina, azkenean, denok ikusi ahal izan dugun argazki hunkigarria egia bilakatu zen. Hilabeteak ikusi gabe zuten Xuarekin familia osatua, laurak irrifar erraldoi batean batuta”, Usurbilen Nahi Ditugu eta Usurbilgo Sarek adierazi dutenez.

Etixeratzearen alde

Gaurkoz, datorren ekainerako dute finkatua espetxetik irteko data. Halere gogoan izan, espetxealdiaren hiru laurdenak beteta, 2018ko ekainean jada kalean behar zuten Olatzek eta Patxik Maddi jaioberriarekin. Xua eta gainerako senideekin etxean.

Berri ontzat jo bai baina ez dela aski diote beste zenbait herri eragileek ere. “Urteak dira herriko erakunde, talde, eragile eta herritar andana Olatz eta Patxiri espetxe legeria arrunta aplikatzea exijitzen zutela. Hamaika ahaleginen ostean, beren kasuan bederen, gauzatze

bidean da azkenean. Gertaera honek sekulako poza eragin du Usurbilen eta, zer esanik, ez bi presoen familia eta lagunenean”. Baina aipatu moduan, honek gertaera isolatu bat ezin duela izan diote.

“Alta, alferrikako sufrikarioa eten eta sentimendu berbera errepikatzea nahi dugu, behar dugu hobe esanda, gainerako euskal preso politikoz guztien kasuan. Horregatik eta horretarako lehenik eta behin preso gaixo, adin handikoei eta baldintzapean berehala kalera-tuak izan daitezkeenei legeria arrunta aplikatzea exijitzen jarraituko dugu. Euskal preso guzti-guztiak behin betiko etxeratuko izateko lehen urrats bezala”.

Usurbilgo zenbait talde ere Olatz eta Patxiren hurbilketaz mintzatu dira egunotan sare sozialetan. Ernai Usurbil bilgunetik aipatu dutenez, albiste “pozgarria da Usurbilgo herritarrentzat, baina ez gara geldituko etxean, aske izan arte!”. Ildo beretik mintzatu zen baita Usurbilgo Sortu. “Berri on bat jaso dugu gaur: Olatz eta Patxi Martutenera 3.graduan gerturatu dituztela! Besarkada bat familiari. Salbuespenezko espetxe politikarekin amaitu! Guztiak etxera. Aske denak”,

galdegin dute.

Patxi Urangak astean lau gau egin beharko ditu espetxean

Usurbilen Nahi Ditugu eta Usurbilgo Sarek NOAUA!ri berri eman diotenez, “biek ala biek astelehen goizean Martuteneko espetxean aurkeztu dute haien burua”.

Eta nobedadeak izan dira bi herrikideon egoerari dagokionean; Olatzi ostegunera arte luzatu diote espetxetik kanpo egoteko baimena. Zergatia Usurbilen Nahi Ditugu eta Usurbilgo Sare taldeek argitu dute: iragan astean aurreratu zuten moduan, Maddi haurtxoarekin Martutenen egoteko baldintza egoki falta. Hilaren 12an, “erabaki finkoago bat hartu beharko dute bere egoeraz”. Patxiri dagokionean, astean lau gau, astelehenetik ostegunera Martuteneko kartzelan igaro beharko ditu. Bi herrikideon familiak “esker ona adierazi nahi die beren interesa eta zoriona helarazi dieten herritar guztiei”.

Azken ostiraleko elkarretaratzerik ez

Etixerat-ek eremu gorrietan diren udalerrietako preso eta iheslarien eskubideen aldeko urriko azken ostiraleko mobilizazioak bertan behera uztea erabaki zuen. Usurbil aipatu eremu gorrian egonik, ez zen elkarretaratzerik egin Mikel Laboa plazan. “Azaroan dauden elkarretaratzeen harira, aztertuko dugu aurrerago egoera nola dagoen eta horren berri emango dugu”, iragarri du Etixerat-ek.

Asteburu honetan abiatuko da NOAUA! Kulturaldia

Azaroak 13, ostirala


- 18:00 "Urpekakariak" bertso antzerkia Sutegin.
- Nori zuzendua: 6-11 urtekoentzat.
- Sarrerak: aurrez 3 eurotan, Lizardin eta NOAUA!ren egoitzan.

Azaroak 14, larunbata

- 19:00 Peru Galbeteren film eta kontzertua Sutegin.
- Ondoren, "Nor zara zu?" diskoa aurkeztuko du bere taldekideekin batera".
- Sarrerak: 6 euro Lizardin eta NOAUA! K.E.-n aldez aurretik. NOAUA!ko bazkideek sarrera bat 4 eurotan aurrez NOAUA!ren egoitzan.

Azaroak 15, igandea

- 18:00 Oskar Alegriaren "Zumiriki" filma eta solasaldia Sutegin.
- Zehaztasunak: Zumiriki



Igande honetan, 18:00etatik aurrera, Zumiriki filmaren proiektzioa Sutegin. Azken egunotan indarrean jarri diren neurriak tarteko, Kulturaldiko ordutegiak egokitu behar izan ditugu. Norbaitek sarrera bueltatu edo aldatu nahi badu, horretarako aukera izango du.

(2019) fikziozko istorio "zehaztezina" da, zuzendariaren beraren hitzetan. "Pirinioetako eskualde urruneko iheslari baten istorioa da, naturarekin eta bere haurtzarorekin duen harremana bilatzen duena, eszena bakoitza ideia harrigarria den filma". Oskar Alegriak Aurretik Emak Bakia film aski

ospetsua zuzendu zuen".

- Sarrera: 6 euro aurrez Lizardin eta NOAUA!n. NOAUA! K.E.-ko bazkideek sarrera bat 4 eurotan aurrez eskuragarri NOAUA!n.

Azaroak 20, ostirala

- 19:00 Anari + Malen eta Madi kontzertuan Sutegin.

- Sarrerak: 10 eurotan aurrez Lizardin eta NOAUA! K.E.-ren egoitzan. NOAUA!ko bazkideek sarrera bat 8 eurotan aurrez eskuragarri NOAUA!n.

Azaroak 21, larunbata

- 17:30/19:30 Korrontzi Dantzan Orbeli Dantza Taldearekin. Bi emanaldi Sutegin.
- Sarrerak: 10 eurotan aurrez Lizardin eta NOAUA! K.E.-ren egoitzan. 8 eurotan aurrez NOAUA! K.E.-ko bazkideek NOAUA!ren egoitzan.

Azaroak 22, igandea

- 18:00 "Fadoak entzuten zituen gizona" antzezlanaren antzezlan Sutegin.
- Sarrerak: 10 eurotan aurrez Lizardin eta NOAUA!ren egoitzan. Aurrez 8 eurotan eskuragarri NOAUA!ko bazkideentzat, NOAUA!ren egoitzan. Antolatzailea:NOAUA! K.E.

DOAKO IKASTAROAK LANGILE ETA LANGABETUENTZAT



Asteheneretik ostegunera
18:00etatik 21:00etara



ESKAINZA IREKIKO ETA PROFESIONALTASUN-ZIURTAGIRIEI DAGOZKIEN IKASTAROAK

MANTENIMENDUA / ENERGIA

- Hoditerien soldadura eta loturak
- 2D instalazio termikoen diseinua: Autocad
- 3D instalazio termikoen diseinua: Revit
- Hozteko Zentrala

ADMINISTRAZIOA / LANERAKO PRESTAKUNTZA

- 5S Metodologia
- Aurkezpen eraginkorrak: nola hitz egin jendaurrean
- Emozioen kudeaketa
- Yoga bidezko estresaren kudeaketa. 1. maila

FABRIKAZIO MEKANIKA

- Metrologia
- Oinarrizko CAM GIBBS Tornua
- Oinarrizko CAM GIBBS Fresatzailea
- Neurketa hirukoitza MCOSMOS

OSTALARITZA

- Bezeroen arreta ostalaritzan/jatetxeetako enpresetan (Ebazteke daude)

ELEKTRIZITATEA / ELEKTRONIKA

- Oinarrizko elektrizitatea
- Hidraulika
- IOT - Interneteko Gauzak: Raspberry eta Arduino



Izena emateko edo informazio gehiago
nahi izanez gero: 943 36 46 00



Etarte bidea, 9 (Zubieta auzoa)
20170 Usurbil (Gipuzkoa)

CIPF USURBIL LHII

www.lhusurbil.eus
formacion@lhusurbil.eus

Peru Galbete: “Ura sartu zen barrura laburmetraia Usurbilen proiektatzea oso berezia da niretzat”

Ura sartu zen barrura laburmetraia eta Nor zara zu? diskoa aurkeztera dator usurbildarra NOAUA!ren Kulturaldira. Larunbat honetan Sutegin arituko da zuzenean taldekideekin batera.

NOAUA! Usurbildarrei hurbilekoa izango zaie zure laburmetraia?

Peru Galbete: Dokumentala ez fikziozko laburmetrai bat da. Gai ezberdinak jorratzen ditu. Usurbilen 1997ko ekainaren 1ean izandako uholdeetan oinarritua dago. Juxtu guri tokatu zitzaigun, Troia auzoan bizitzen geundelako. Urak harrrapatu zuen auzoa. Beste gai batzuei buruz ere hitz egiten du, ez era tradizionalen, pieza espermentalagoa da; uholdeari lotutako lekukotzak, nire txikitako oroitzapenak... Askok hitz egiten du memoriaz, denborak nola eraldatzen duen memoria. Diapositiba eta audio batzuekin egingo dago laburmetrai osoa.



Pandemia aurreko egunetan, Punto de Vista zinema jaialdian estreinatu zuen laburmetraiak lotura estua du Usurbilekin. Argazkia: David Herranz, Loraldia.

PERU GALBETE

“Usurbilen 1997ko ekainaren 1ean izandako uholdeetan oinarritua dago laburmetraia”

Sortze lan honen bidez egileak bera hobeto ezagutzeko parada izango dugu.

Nahiko pertsonala da baina jendeak antzekotasunak aurki-

ditzake bere esperientziekin.

Zurea den sortze lan hau jendearekin partekatzean zer jaso duzu?

Pandemia aurreko asteetan Punto de Vista jaialdian estreinatu nuen. Lagun artean denak batera pantaila handian ikustea oso ederra izan zen. Usurbilen proiektatzea oso berezia da niretzat, nire etxea izan baita urte askoan.

Lan honen plazaratzea baldintzatuko zuen Covid-19ak?

Bai, orain arte dena geldirik egon da. Badirudi orain aktibatzen ari dela kontua eta baditut dokumentala proiektatuko duten pare bat jaialdi konfirmatuak. Alor guztietan bezala, baina batez ere kultur edo arte arloan zuzenean aurkezteko beharra dugu, jendeak ikus dezan eta horretan Covid-19ak asko eragin du noski. Halere zorteduna sentitzen naiz; ikusten dut badagoela behar bat baita ere publikoaren partetik eta hor ikusten dut funtzio bat duela artistak.

Are gehiago garaiotan.

Bai eta beharra zentzu askotan; emozionala, hartzaile bezala ere gustura ikusiko nituzke emanaldiak. Artistak ere badu jateko beharra. Garai hauetan lehen gaizki zegoen sektorea okerrera joan da baina behintzat espero dut honi buelta ematea eta kultura, artea baloratzea.

“Iruñeko bi musikarirekin batera arituko naiz”

NOAUA! Eta musika baita ere. Gutxitan bezala, sortzaile berdina ikusiko dugu ekitaldi berean bere ikus-entzunezko bat proiektatzen eta segidan kontzertu bat eskaintzen.

Peru Galbete: “Nor zara zu?” diskoari lotutakoa. Azkenean urteetan banabilen kanta batzuk lantzen. Konfinamendua zen juxtu eta lana sarean jartzea erabaki nuen. Oso harriera ona izan zuen. Egia esan une horretan horrela kaleratu nuen, zuzenekorik noiz, nola eskaini ahalko nuen jakin gabe. Beti ere bai bakarrik ibili izan naiz musika egiten

eta kantak horretarako aukera ematen zutenez taldean eskaintzea pentsatu nuen konfinamendua bukatu ostean. Uhartan bizi naiz. Iruñeko bi lagun proposatu nien eta oso gustura gaude, Santi Etzeberria (kontrabaxua), Idoia Arizaleta (gitarra) eta ni (txarangoa, ukelelea eta ahotsa). Eta ematen diote beste bizitasun bat kantei zuzenekorako aproposa.

Ikus-entzunezkoen mundutik zator baina musikaren bidea gailentzen ari zaizu?

Bai. Halere beti hor nabil biak uztartzen. Musikak eta bideo-gintzak ematen didate jatekoa

eta aldi berean gustura sentiarazten nauten proiektuak egiten saiatzen naiz.

Nolako da artista baten agenda Covid-19 garaiotan?

Azkenean egia da Covid-19a etorri zenean agenda oso bete egon arren, hutsean geratu zela. Baina pixkanaka baditut proiektu ezberdinak eta askotan gainera ez dauzkadanean sortu egiten ditut. Disko hau bezala, etxean grabatua izan zena. Une honetan beste laburmetrai batekin nabil. Kanta batzuk ere lantzen ari naiz. Baditut bestelako proiektu batzuk gehiago jaten ematen di-

datenak. Oraintxe diskoaren barrurako liburuxka bat egin dut eta bukatzeko denbora juxtua emango dit.

Bi modutara Zure emanaldia asteburuan Sutegin.

Berezia izango da laburmetraia Usurbilen ematea. Jende asko agian identifikatua senti daiteke. Elkarrizketak Usurbilen grabatu dira eta niretzako bertan ematea zerbait berezia izango da, Sutegin gainera. Politza izango da, ez direlako askotan bi formatu nahasten.

Malen eta Maddi: “Usurbilen kulturari garrantzia ematen ari zaio eta hori eskertzekoa da”

NOAUA!ren Kulturaldiko kide izango ditugu baita gogotsu datozen sortzaile gazteak. Malen Azpiazu eta Maddi Zuloaga kasu. Udako Kultur Biran haien ahotsaren indarrak, bat-batekotasunaz gozatzeko parada izan ez bazenuten, datorren Kulturaldian horretarako aukera izango duzue.

NOAUA! Topaketa feministak izan ziren zuen musika harremanaren abiapuntua, ezta?

Malen: Lizarrako neska gazteon topaketa feministetara joan ginen Usurbilgo Kafe Tertuliako kide batzuk. Bertan ginela, gaztetxean bakar-lari baten emanaldia zegoen. Gaixotu zen. Bi pertsona behar zituzten eta gu animatu ginen. Lehenengo kontaktua izan zen gu biona batera eta oholta batean. Lizarran taberna batean eta iazko Gazte Eguneko Euskaraldiaren ekitaldian hiru abesti kantatu genituen, Kultur Biraren baitan Aginagan. Egia



Azaroaren 20an, Malen Azpiazu eta Maddi Zuloaga zuzenean arituko dira Sutegin, Anarirekin batera eskainiko duten kontzertuan.

MADDI

“Ahotsarekin, jarrerarekin asko transmititzen dugula esan didate eta oso ondo pasatzen dutela gurekin”

esan halako proiektuak gogotsu hartzen ditugu.

Zer sentitzen da lehen aldiz hain modu inprobisatuan oholta gainera igota?

Maddi: Kanpoan egon ginen entseatzen tartetxo batean. Mikrofono irekia zenez, ahal genuen dena eman genuen. Urduri ginen. Jaitsi ginenean zoriondu egin ziguten. Jende asko harrিতa geratu zen.

Malen: Topaketa feminista bat zen, egun osoa batera pasa genuen. Lagun batzuk genituen lehen lerroan. Hasiera batean arrotza izan zen baina oso oso gustura geratu ginen emaitzarekin.

Entzun zaituztegunon artean zuen ahotsaren indarra nabarmendu behar da. Zer diote zuen emanaldietara joandakoek?

Malen: Erantzun oso ona jaso izan dugu eta potentzia daukagula esaten digute.

Maddi: Gure jarrera oholta gainean lotua dago potentzialtasun horrekin. Urduri ateratzen gara baina gogo handiarekin. Ahotsarekin, jarrerarekin asko transmititzen dugula esan didate eta oso ondo pasatzen dutela gurekin.

Malen: Lagun arteko giroa sustatzea da gure helburuetako bat.

Kultur Biran, giro polita Harreman berezia, hurbilekoa sortuko da publikoarekin.

Malen: Kultur Birako Aginagako emanaldian adibidez, bukaeran, bertsoak jotzen ditugunez jendeak proposatzen zizkigun abestiak denak batera hasi ginen kantatzen. Oso giro polita sortu zen.

“Egun emakume gehiago dago oholta gainean”

NOAUA! Kontzertuetan zein izaten da zuen kantutegia?

Maddi: Euskarazko kantak izaten saiatzen gara gure hizkuntza baita. Saiatzen gara publiko horri gertutasuna erakusten, haiek dakizkiten kantak abesten, denak batera giro hori sortzeko. Batzuetan oraingo kantak sartzen ditugu, Liher edo Izaki Gardenak taldeenak. Baita kanta zahar-txeagoak ere.

Emakume sortzaile gehiago ikusten ari gara oholtan. Zerk eragin du aldaketa?

Malen: Bere garaian, txosna batzorde desberdinetatik emakumeak oholta gainera

igotzeko lanketa sustatu zen. Egun emakume askoz gehiago dago oholta gainean. Erreferente emakume geroz eta gehiago dago Euskal Herrian, horrek agian bultzatu du edota azken aldirik feminismoak eman duen bultzadak, emakumeak hartu dugun ahaldu-tzea, indarra...

Maddi: Azkenean musika instrumentu bat izan da feminismoa bultzatu dezakeena. Lehenengo haiek ez zuten erraza izan. Orain ez dago erraztasun handia baina errazago ematen duzu urrats hori.

Malen: Orainxe giro goxoagoa, konfiantzazko giro handiagoa dago oholtzara igotzen zaren

unetik duela bost urte baino. Agian ahalduagoak gaude-lako baita emakumeak.

Covid-19 garaitan, partaide izan zineten Kultur Bira edo konfinamendu garaiko artixten online bidezko emanaldiak alternatiba ezin egokiagoak irudituko zaizkizue?

Maddi: Konfinamendu garaian herritarrak kantatzen entzuteak eta parte hartzeak bizipoz handia eman zidan.

Malen: Kultur Biran, pertsona bakoitza aulki batean zuri begira distantziekin ikusita oso arrotza egiten da dena ematea baina aukera polita izan da taldeak entzuteko. Usurbilen ka-

suan behintzat zorte handia izan dugu Kultur Birarekin, orain NOAUA!ren Kulturaldiarekin. Hemen behintzat kulturari garrantzia ematen ari zaio eta hori eskertzekoa da.

Aurrera begira talde egonkor bat sortzekotan zarete?

Maddi: Egia esan ez gara horretan pentsatzen jarri. Bizitza oso desberdinak ditugu, bakoitzak bere aldetik jotzen du musika. Halere aukera ematen zaigun toki guztietara joateko prest geundeke.

Malen: Jarraikotasuna orainxe zaila ikusten dut baina agian baliteke bi urte barru lortzea.

Ostalaritza, kinka larrian

Pertsianak jaitsita, terrazak bilduta, isilik, giro benetan tristearekin esnatu zen Usurbil, Covid-19aren hedapena geratzeko Eusko Jaurlaritzaren neurri murriztaile berriak indarrean jarri ziren azaroaren 7an. Herritarrek plazetan eserita, haurrak jolasean, asko oinez pasean ohiko herri-bideetan. Beste edozein asteburuetan bizi asko egongo ziren ostalaritza gunek hutsik. Taberna eta jatetxeetako langileek neurriak ezin zorrotzago bete dituzte hila-beteotan. Halere dirudien ez da aski izan, eta lan jarduna eten diete berriz.



Langile mordo egoera ezin delikatuagoan aurkituko zen lehendik, are gehiago orain.

Langile mordo egoera ezin delikatuagoan aurkituko zen lehendik, are gehiago orain. Betidanik herri bizitza suspertzen ezinbesteko funtzioa bete duen herri ostalaritza, Covid-19 garaiotan herritarrek biltzeko gune bakarrenetarikoa itxita izango dira, dirudien azarora amaierara arte gutxienez. Kolpe latza bereziki sektorearentzat, baita herriarentzat ere.

Laguntza aukerak aztertzen

Neurri gogortzat jo du Usurbil-

SEKTOREA, KOLOKAN

Ostalaritza jarduerak laguntzeko “aukera ezberdinak aztertzen” ari dela berri eman dute Usurbilgo Udaletik

go udal-gobernu taldeak jatetxe eta tabernen itxiera, “sektorearentzako kolpea” izango da gaineratu dute. Egoera honen aurrean, udal-gobernu taldea ostalaritza jarduerak laguntzeko “aukera ezberdinak az-

tertzen” ari dela berri eman dute Udaletik. Gogoan izan, martxan duela merkataritza eta ostalaritza guneei zuzenduriko diru-laguntza lerro berezi bat; Covid-19aren eraginez egin beharreko inbertsioetarako hain zuzen. Eskabideak azaroaren 20ra arte aurkez ditzakete interesdunek. Informazio gehiago, urriaren 27ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

Neurri berrietara egokitzeko xehetasunak egunotan

Eusko Jaurlaritzak azaroaren 7an indarrean jarritako neu-

rri murriztaile berri guztioi buruzko argibide gehiago jaso zain da Usurbilgo Udala, zehazkiago esanda, “musikari, kulturari eta kirolari dagokion hainbat neurri dagokionez”. Adibide moduan jarri ditu kirol instalakuntzetan egin beharreko moldaketak. “Gimnasioan, esaterako, maskara erabili behar da derrigor eta aldage-lak ez dira erabilgarri izango gimnasioko erabiltzaileentzat”. Hainbat moldaketa egin behar duela jakinarazi du Udalak, xehetasunak egunotan plazaratzeko da.

Zumarte Musika Eskolak 21:00etan etengo du jarduna

“Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak adierazi digu, dekretuko eranskinaren 7.1. puntua kontuan izanik, musika eskolak, araubide bereziko irakaskuntzen barne gaudela”, Zumartetik adierazi dutenez. Honenbestez, ohiko jardunari eutsi ahalko diote Eusko Jaurlaritzaren neurri murriztaile berriak indarrean diren honetan, beharrezko prebentzio neurriak hartuta. “Jarduera

guztiarekin jarraitu ahal izango dugu: musika mintzaira, musika txokoa, instrumentu klaseak, abesbatza eta baita talde instrumentalak ere (mota guztietakoak)”. Hori bai, kultur ekitaldi eta ikuskizunak amaitzeko finkatu den orduan, iluntzeko 21:00etan eten behar dute euren eguneroko jardura. “Beraz, agian ordutegiren bat moldatu behar dugu”, iragarri dute Zumartekoek.



“Jarduera guztiarekin jarraitu ahal izango dugu”, diote Zumartetik.

Eusko Jaurlaritzak neurri murriztaile berriak ezarri ditu

Lehendik zeudenak indartzera datoz ondoko neurri murriztaileak. Horretaz gain, hainbat gomen-dio luzatu ditu Eusko Jaurlaritzak.

Indarraldia

Azaroa osoan, 15 egunero eba-luatuko dira.

Etzeratze-agindua


22:00-06:00. Ordu tarte horretatik kanpo, ezin udalerritik ezta EAE-tik atera edo sartu, ohiko salbuespen kasuetan ez bada: lana, ikasketak, zaintza lanak... Jarduera sozioekonomikoetarako mugakide diren udalerrietara joatea baimendua.

Musukoan erabilera

6 urtetik gorako herritarrek derrigorrez jantzi beharko dute musukoa, pertsonen arteko distantzia edozein delarik ere; bide publikoan, aire zabalean, erabilera publikoko edo jendaurreko espazio itxietan edota lantokietan.

Merkataritza guneak

Farmaziak eta gasolindegia-kiak izan ezik, gainerakoek 21:00etan itxi beharko dute.



6 urtetik gorako herritarrek derrigorrez jantzi beharko dute maskara, pertsonen arteko distantzia edozein delarik ere; bide publikoan, aire zabalean, erabilera publikoko edo jendaurreko espazio itxietan edota lantokietan.

GOMENDIOAK

Ezinbestekoak ez diren familia- edo gizarte-jarduerak eteteko gomendioa luzatu du Eusko Jaurlaritzak

Kultu-lekuak

%35eko edukierarekin zabaldu ahalko dira. Gehieneko edukiera zehaztu beharko da gunean bertan, ikusteko moduan.

Ostalaritza guneak

Guneon itxiera. 21:00ak arte etxera eramateko jateko eta edatekoa prestatu eta zerbitzatu ahalko dute.

Kultur jarduerak

21:00etarako amaitu beharko dira.

Kirol jarduerak

Taldeko kirol jarduerak bertan behera. Gimnasio, kirol-talde, igerileku eta kiroldegietan pro-

gramatutako ikastaroak edo jarduerak baimenduak, eskola-kirola izan ezik, gehienaz seiko taldeetan eta edukiera %40ra mugatzen bada.

Garraio publikoa

Azken zerbitzuak 22:30ean. Salbuesiak geratuko dira taxiak "edo gidaridun garraio-ibilgailuz eginiko garraioa".

Dekretu osoa, azaroaren 6ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

Azken tren eta autobus zerbitzuak 22:30ean

Eusko Jaurlaritzak Covid-19aren hedapena murrizteko indarrean jarritako azken neurrien artean, garraio zerbitzuei eragiten dien erabakibat ere bada. Aurrerantzean, 22:30ean abiatuko dira azken tren eta autobus zerbitzuak. Usurbil zeharkatzen duten garraio zerbitzuengan eragin txikia izango du. Orain arteko ordutegiei erreparatuta, Euskotrenen kasuan ez da aldake-

tarik izango. Lurraldebusen kasuan, Aginaga eta Usurbil ospitaleekin lotzen duen T2 eta Usurbil zein Zubieta Herriarekin lotzen duen T6 autobus zerbitzuetan ezta ere. Zumaia-Donostia arteko UK09 zerbitzuan aldaketa txikiren bat izango da; larunbat, igande eta jai egunetan Donostiatik abiatu ohi den 22:45eko zerbitzua (23:15ean Usurbila heltzen dena) ezabatu egin

du Lurraldebusen. Azken zerbitzua gaueko 22:00etako izango da, 22:30ean helduko da Usurbila. Taxi zerbitzua eskaintzen segi ahalko da 24 orduetan. Udalaren Taxibusari ere ez dio eragingo neurri honek.

Informazio gehiagorako:

lurraldebus.eus / 900 300 340 (asteleheneetik igandera, 8:00-20:00 artean)
euskotren.eus / 944 333 333



Zumaia-Donostia arteko UK09 zerbitzuan aldaketa txikiren bat izango da.

Bigarren itxialdia, kolpe latzagoa

Haserrea, kezka, ezin negona, harridura eta emozio gehiago nahasten dira, urte honetan bigarrenez negozioak itxi dizkieten ostalarien artean. “Konfinamendu garaian itxi, gero %50eko aforoarekin gastuak ordaintzeko larri. Orain berriz hilabete itxita. Nora joango gara?”, galdetzen du Aginagako Arrate tabernako Iñigo Eguilegorrek.

Egun batetik besterako bat-bateko Eusko Jaurlaritzaren itxiera aginduak ezustean ere harrapatu ditu. “Esperantzaxa pixka bat banuen 21:00ak arte ireki ahalko genuela, baina itxiera kolpe gogorra izan da”, adierazi dio aldizkari honi Bordatxo tabernako arduradun Paulino Ibargoienek. Astebururako genero guztia erosita harrapatu zien itxierak Arrate tabernan.

“Ez dugu izan foku bat”

Bigarren itxiera aurreko hilabeteak ere ez dira errazak izan. Ohiko lanez gain, arduragehiago hartu behar izan



“Esperantzaxa pixka bat banuen 21:00ak arte ireki ahalko genuela, baina itxiera kolpe gogorra izan da”, adierazi dio aldizkari honi Bordatxo tabernako arduradun Paulino Ibargoienek.

PAULINO IBARGOEN, BORDATXO TABERNA

Itxiera mehatxupean “ez duzu batere ondo lo egiten. Nekagarria da”

dituzte haien bizkar gainean, zorroztasun handiz gainera. “Desinfekzioa, musukoak, distantziak... Presiopean, oso nekagarria da hala lan egitea”, aipatu digu Santueneko

Gure Elkarte tabernaren arduradun Ana Floresek. Itxiera mehatxupean “ez duzu batere ondo lo egiten. Nekagarria da”, Paulinoren esanetan. Eta horretan ari zirela, “negozioa ixten dizute berriz”. Modu bidegabean gainera, Santueneko tabernaren arduradunak gogorarazi duen moduan, “%3a baino baxuagoa da Covid-19aren intzidentzia ostalaritzan. Oso kontrolatua dago

dena ostalaritza eremuan. Ez dugu izan foku bat, neurriak betetzen ari garelako. Ez dut uste hori gure negozioak ixteko arrazoiak denik”. Ez dago argi bere esanetan kasuen benetako sorburua zein den. Ana elkarrizkatu genuen egun berean manifestatu ziren ostalariak Donostian. Hara joatekotan zen bere haserrea adierazi eta “behintzat talde indarra sentitzeko”.

“Giroa oso arraro eta triste dago”

Tabernak itxi bai eta laguntzak? “Ez dakigu ezer”, aipatu digu Eguilegorrek, Covid-19ak eraginda, Usurbilgo Udalak ostalaritza establezimenduetan egin beharreko inbertsioetarako laguntza lerroa salbu. “Oso pozik ginen laguntza horrekin” Paulinoren esanetan, baina “orain nola hasiko gara inbertsio horiek egiten?”. “ERTEak badaude, baina autonomoentzako ez dago ezer”, gaineratu du Arrate tabernaren arduradunak. Erakundeen planifikazio falta kritikatu du. “Lehenengo itxi, gero ikusiko dugu nola, zenbat denbora...”.

Telefonoz elkarrizketatu genuen unean, martxoko konfinamenduan bideraturiko tramitazio bera abiatzekotan zen Paulino. “Orain berriz langileak ERTEan jarri, martxoko kalamatrika bera. Baina hau ordukoa baino okerragoa izango da, nahiz eta motzagoa izan”. Bigarren itxialdian dira, eta berriz “kontuan ez duzu dirurik sartzen baina kobratzen segitzen dute”. Gastuei aurre egiten segi behar. Eta gero berriz ireki, “gabonetan libre egoteko?”. Ostalari batek baino gehiagok susmoa du, tarte horretarako ireki ahalko dutela negozioa gero berriz ixteko.

“Ez dakit zein izango den panorama, baina txarra seguru”, Eguilegorren esanetan.

Onartezintzat jotzen dute, bizi dugun osasun, gizarte eta ekonomia krisialdiaren ondorioak beti berdinek pairatu behar izatea. “Denok ez dugu koltxo bera bizitzeko”, gogorarazi du Anak. “Hemen dirua langileentzako osatu behar da. Denen egoerak ez dira berdinak”, gogorarazi du Paulinok.

Sektoreak bereziki, baina herriak ere nabari du noski ostalaritza guneen bigarren itxiera. “Elkarrekin bizi gara. Tabernariok herriko dendetan erosten dugu. Haiei ere eragingo die

itxierak. Hau kate bat da”, gogorarazi du Paulinok. Herri giroa galanki itzali du, bai herri erdigunean baita auzoetan ere. Santuenean “orain zer egingo duten, guk ixtean auzoa basamortu bat dela adierazten digute. Giroa oso arraro eta triste dago”. Aginagan ere antzera; herri erdigunean zuten taberna bakarra itxita. Larunbatean bertan, jubilatuen elkarteko ile-apaindegira joandakoek galdetzen zuten ia “zer egingo dugu ondoren? Nahi baduzue etorriko naiz eta eramateko kafea prestatuko dizuet eta gero parkean edo hartu erantzun nien”.

“Askok pertsiana jaitsi beharko dute”

Gogoan izan, taberna eta jatetxeek janaria prestatu eta etxera eramateko zerbitzatu dezaketela. Santueneko Gure Elkartean aukera hau eskaintzen hasteko prestaketa lanetan ziharduten asteburuan. Aginagan adibidez, Arrate tabernako arduradunaren esanetan, “hemen janaria eramateko ohitura handirik ez dago”. Aldiz, orain arte bezala, eskolako jangela zerbitzua eskaintzen segi ahalko du. Eta aginagarrek “ogia erosi behar badute ere hemen gongo naiz”.

Egoera gogor honetan aurrera jotzeko asmo argia dute. “Hori nik diot, beste askok pertsiana jaitsi beharko dute”, Eguilegorrek adierazi



Arrate tabernako arduradunaren esanetan, “hemen janaria eramateko ohitura handirik ez dago”.

digunez. “Moralala altxa eta digu Paulinok. Gaineratu due- egingo dugu”. Bitartean atea segi behar dugu”, adierazi nez, “irekitzean ederki lan itxita, ezin ezer egin.

COVID19 BIRUSAREKIN GAIKOTUTAKO KASU POSITIBOREN BAT DUTEN ETXEBIZITZAK

Erabil itzazu 3 poltsa



Positibo eman duen pertsonaren erabilera bakarreko materialak, bere zaintzailearenak, eta pazientearen gainerako hondakinak:

SARTU POLTSA BATEAN, ETA ONDO ITXI (1go poltsa).

Pazientearen logelaren barruan egin.



SARTU 1GO POLTSA, ZAINITZAILEAREN ERABILERA BAKARREKO MATERIALAREKIN, (ESKULARRUAK, MASKARAK...) BESTE POLTSA BATEAN, ETA ONDO ITXI (2. poltsa).

Pazientearen logelaren barruan, ate ondoan.



SARTU 2. POLTSA ERREFUSAREN KUBOAN (3. poltsa), ETA ONDO ITXI.

DEITU ATEZ ATEKO BULEGORA (900 776 776): GU JOANGO GARA HONDAKINAK JASOTZERA.



ARRETAZ GARBITU ESQUAK, URA ETA XABOIA ERABILITA,

40-60 SEGUNDOZ.

PCR probaren lehenengo emaitzaren zain bazaude, ez atera hondakinik

GAINERAKO HERRITARREK (Eskularruak, maskarak, mukizapiak)

Kalean: errefusaren edukiontzietan
Etxean: errefusaren kuboan



GAINERAKOAN, JARRAITU OHI BEZALA SAILKA BIRZIKLATZEN



Ahobizi eta Belarriprestak Euskaraldirako prest

Euskaraldia ia ate joka dugun honetan, txapak hartzeko ordua da. 2018an egin legez, norbanakoez Ahobizi edo Belarriprest txapa eraman dezakete paparrean. Aurten, osasun egoeraren harira, izen-ematea internet bidez egiteko eskatu dute, eta txapa hartzera mahaietara hurbiltzeko. Hala ere, mahaian bertan izena eman zitekeenez, halaxe egin du zenbaitek. Kaxkoan, Zubietan, Santuenean eta Aginagan ere aukera izan dute herritarrek txapa hartu eta izena emateko.

Azaroaren 20tik aurrera kaleetan hasiko dira txapak ikusten. Batzuk Ahobizi izango dira, eta besteak Belarriprest. Lehenek konpromisoa adierazten dute euskaraz aritzeko ulertu edo hitz egiteko gai direnekin, bai eta elkarrizketa elebidunetan ere. Belarriprestek berriz, euskara maila desber-



Euskaraldiaren txapak azaroaren 20tik aurrera jarri behar dira.

EUSKARALDIA

“Azaroaren 20tik aurrera kaleetan hasiko dira txapak ikusten. Batzuk Ahobizi izango dira eta beste batzuk Belarriprest”

dinak izan ditzakete, oso ongi egiten duen batetik euskara ulertu, baina hitz egiteko gai ez den norbaitera. Belarriprestak

orokorrean ez dira elkarrizketa guztiak euskaraz egiteko prest sentitzen; ohitura dela medio, gaitasuna dela medio. Hala ere, Euskaraldian prest daude elkarrizketetan euskara jasotzeko, eta ahal duten neurrian euskaraz erantzuteko.

Txapa jaso duen orok, azaroaren 20tik abenduaren 4ra arte paparrean eramango du txapa eta ariketa sozialean parte hartuko du. Aurtengo berrikuntzen artean ariguneak dira

aipagarrienak. Norbanakoez gain, euskara sustatzeko lanetan arituko dira enpresak ere. Barne jardueran egingo dituzte aldatetako batzuek, edo behintzat konpromisoa hartu dute enpresa barruan euskaraz aritzeko. Beste batzuek kanpo jardueran sustatuko dute euskara, herritarrekiko harrerarako eta kanpo harremanetara bideratuko dute sustapena. Azken hauen izen ematea lehenago amaitu zen, eta Usurbilen herrera ona izan du ekimenak.

Euskaraldiko banderatzxoak

Sentsibilizazio lana areagotzeko asmoz, Euskaraldiak balkoietan jartzeko moduko banderatzxoak plazaratu ditu. Usurbilen, Eroski Cityn eta Laurop liburu dendan dituzte salgai 5 euroan. Euskaraldiaren webgunean ere, ‘denda’ atalean, Elkar dendetan edota Berria egunkaria saltzen duten kioskoetan ere eros daitezke.



Kaxkoan, Zubietan, Santuenean eta Aginagan aukera izan da txapa hartu edota Euskaraldian izena emateko.

“Udaberrian eta udan uste baino hobeto aritu gara”

NOAUA! Nola gogoratzen dituzu konfinamenduan bizitako momentuak?

Enar Estetika: Konfinamendua amaitzear zela, Estetizisten Elkartetik informazioa bidali ziguten irekiera nola egin behar genuen adieraziz eta hartu beharreko neurri guztiakin. Abisua eman zigutenean nahi genuenean irekitzeko, asteburuan dena txukundu eta beharrela ireki egin genuen.



“Dena behar bezala prestatuta eta informazio guztiarekin ekin genion konfinamendu osteko aro berriari”.

Informazioaz gain, laguntza ere eskaini dizuete Estetizisten Elkartetik?

Bai, informazioaz gain materiala ere bidali ziguten segurtasun neurriak behar bezala betetzeko. Profesionalak formatzeko kurtsoak egiteko asmoa zuten aurten, baina egoerak hala eskatuta diru hori babes materialera bideratu zuten. Dena behar bezala prestatuta eta informazio guz-

ENAR ESTETIKA
“Segituan saldu ziren bonu guztiak. Laguntza horrekin jendea oso animatuta ibili zen”

tiarekin ekin genion konfinamendu osteko aro berriari.

Nolako erantzuna jaso zenuten

bezeroengandik?

Hasiera-hasieratik jendea segituan animatu zen tratamenduekin jarraitzea, eta oso gustura hartu genuen jendearen harrera hori. Urte sasoi ona izaten da apiriletik uda amaiera artekoa, udara begira lan egiten dugulako. Bagenuen beldurra jendearen erreakzioarekiko, baina le-

hen momentutik lasaitu ginen bezeroen erantzun ona ikusita. Garai onak izan ziren urteroko erritmoan aritu ginen, eta zentzu horretan ez daukagu kehatzeko arrazoirik.

Behin uda pasatuta, nola daude gauzak orain?

Iraila eta urria orokorrean ez dira hilabete indartsuak izaten guretzat. Haurrak eskolara hasten dira, jendea lanera itzultzen da eta jendeak beste lehentasun batzuk izaten ditu orokorrean.

Ikasturte hasierako beldur horiek ere izan dute eragina gure sektorean, baina uste baino apalagoa izan da hori ere. Bazen bigarren konfinamendu baten beldurra, baina azkenean uste baino hobeto joan da. Gainontzeko urteetan baino zerbait gutxiago agian, baina ez da gehiegizko behararakada izan.

“Orain martxoan baino arduratuago nago”

NOAUA! Martxoan nola harrapatu zintuen konfinamendua?

Anais Estetika Zentroa: Aste batzuk lehenago konturatuta nengoen zerbait gertatzen zela, eta ez ninduen horren bapatean harrapatu. Egun batzuk lehenago ere, Zaharren Egoitza itxi zuten eta beste leku batzuk ere bai. Gogorrena izan zen ez jakitea noiz eta nola itzuliko ginen lanera, eta bezeroek nola erantzuten zuten.



“Gertuago kanpaina oso ekimen ona iruditu zait”.

Maiatzean lanera itzultze hori nola gogoratzen duzu?

Lehenengoetarikoak izan ginen irekitzen. Ilusioz ekin nion batez ere, bezeroak ikusteko gogoarekin eta haiek pasatutako esperientziak entzuteko gogoarekin. Urduri ere banengoen, zalantza neukan bezeroek nola erantzun ote zuten, batez ere lehenengo hilabete hartan.

ANAIS ESTETIKA ZENTROA
“Bezero batetik bestera dena garbitu eta desinfektatu egin behar dugu. Ez dago beste erremediarik”

Gertuago kanpainak lagundu dizu negozioan?

Bai, niri oso ekimen ona iruditu zait. Bezeroei diru pixka bat aurrezten lagutzen die,

eta nire kasuan bezero berriak egiteko aukera eman dit. Berezi ki oso gazteak ez diren bezeroak ditut, batez ere, eta beldur gehiago dute egoera honengatik guztiagatik ilepaindegira etortzeko. Aukera eman dit zentzu horretan jendea gehiago ezagutzeko eta bezero berriak egiteko. Ni Urnietan bizi naiz, eta han ere gisa honetako ekimen bat martxan jarri dute, baina ez dira berdin egiten ari eta nahiago

dut hemen, Usurbilen, egiten ari garen modua. Errazagoa eta probetxu gehiago ateratzeko modukoa da hemengoa.

Egoera berriz ere okerrera doa. Nola ikusten duzu etorkizuna?

Orain arduratuago nago martxoan edo maiatzean baino. Biharko egunean lan egiten jarraitzeko aukerarik izango dugun edo ez, horrek beldurtzen nau gehien. Gainera, nik lanean jarrai badezaket, baina jendeak ia etxetik ezin badu atera bezerorik ez dut izango. Orduan ia okerragoa da egoera. Irekita jarraitzen badut, baina inor ez badator gastua ari naiz egiten. Beherakada txiki bat ere nabarmendu dut azken hilabete honetan, nahiko ohikoa izaten da urte sasoi honetarako, baina beste urte batzuetan baino handiagoa izan dela iruditzen zait pandemiarengatik.

“Usoa Zumeta elkarlanean” erakusketa Aiete Kultur Etxean

Biatal izango dituen erakusketa Donostiako Aiete Kultur Etxean (Aiete Pasealekua, 63) izango duzue ikusgai urtarrilaren 31era arte.

Batetik, Jesus Mari Lazkanok 2019an sortutako “Savalvard II” irudia sortu zuen eta estanzazio lanean parte hartu zuen Usoak. “Artistak egindako 14 urratsak ikusteko aukera izango da”, Donostia Kulturak zehaztu duenez. Bestetik, azken urteetako estanzatutako serigrafia lanen aukeraketa bat egin eta 25 artelan ikusgai jarriak izango ditu; tartean Jose Luis Zumetaren sortze lanak izango dira ikusgai. Baita beste hainbat artistenak ere: Dora



Urtarrilaren 31era arte egongo da Donostiako erakusketa zabalik.

ERAKUSKETA

Azken urteotan egindako lanen aukeraketa bat egin du

Salazar, Koldobika Jauregi, J.A Sistiaga, Judas Arrieta, Néstor

Basterretxea, Ainize Txopitea, Vicente Larrea, Germán Gargano edota Elena Asins, besteak beste. Ordutegi honetan: asteartetik ostiralera (16:00-20:30), larunbatetan (10:00-14:00/16:30-20:00) eta igandeetan (10:00-14:00).

Miriam Arrillaga, Master Laboral Kutxako finalerdian

Binakako Master Laboral Kutxa txapelketako lehen partidak jokatu ziren aurreko asteburuan. Ruiz de Infante eta Miriam Arrillaga bikoteak finalerdietarako txartela eskuratu zuten.

Konfinamenduak, positiboek eta lesioek eragin zuzena izan dute txapelketan, baina antolatzaileak ez dira kikildu.

Legution jokatu ziren B taldeko partidak. Horien artean, Ainhoa Ruiz de Infante eta Miriam Arrillaga bikotearena. Hasiera hasieratik hartu zuten partidako aginte makila



Ruiz de Infantekin batera bikote sendoa osatu du Miriam Arrillagak.

(22-8 izan zen azken emaitza).

Garaipen honi esker, Ruiz de Infante eta Arrillaga Binakako Master Laboral Kutxa txapelke-

tako finalerdian izango dira. Abenduaren 6an jokatuko dela iragarri dute antolatzaileek. Zehazteke daude ordua eta tokia.

Eskola Kirola eta klub federatuen jarduna, bertan behera

Covid-19aren hedapena murrizteko larunbatuz geroztik Eusko Jaurlaritzak indarrean dituen neurriek Usurbilgo kirol jardunari eragingo diote bete-betean. Usurbilgo Udaletik zehaztasunok plazaratu dituzte:

■ Eskola Kirola eta klub federatuen jarduna bertan behera geratu da.

■ Kirol ikastaroak egin ahalko dira, saio guztietan musukoa jantzita (igerilekuan salbu noski), gehienez ere seiko taldeetan.

■ Aldagelak ezingo dira erabili, igerilekukoak salbu.

■ Farmaziak edota gasolindegia salbu, gainerako establezimenduen itxiera ordua 21:00etarako finkatu da. Oiardo Kiroldegia ere ordu horretan itxiko dute.

■ Gainerako udal-zerbitzu eta agendari eutsiko dio Udalak, beharrezko egoitzapen eta segurtasun neurriekin: “esaterako, zahartze aktiboa sustatzeko udalak antolatutako saioek aurrera jarraituko dute, eta azarorako iragarritako kultur eskaintzari ere eutsiko zaio”.



Eskola Kirola eta klub federatuen jarduna bertan behera geratu da.



EROSKI/city
kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182



ARTZABAL
BASERRIA · JATETXEA

www.artzabaljatetxea.eus

EGUNEKO MENUA KARTA
PLATER KONBINATUAK
OGITAR TEKOAK · TOSTAK
MENU BEREZIAK

943 36 91 39



Zubiaurrenea 8
943 370 008

Lagun arteko lehia dardo-jokoan

Afaritxo baten aitzakian garai bateko Irrati tabernan dardoetan jokatzen hasi, zaletu eta kirol jardueran bilakatu zaie zenbait usurbildarrei Aitzagako dardoen makina. Jada beste hainbat txokoetako zaletuekin lehiatzen aritzen dira. Kroaziarako bidaia bat eskuratzear dira oraintxe.

Nolatan zaletu zineten dardo-jokora, Aitzagan duzuen makinari esker?

Dani Fernandez: Irrati garaitik. Ostiral eta larunbatetan lagunekin geratu eta zerbeza batzuk dastatuz, aitzakia horrekin dardotan hasi ginen eta azkenean gustatu. Horren baitan txapelketetan parte hartzen hasi ginen. Joseba Unanuek makina jartzen digu eta bertan txapelketak antolatuta parte hartzen dugu. Astebururo zer-bait egoten da.

Dardoan inguruan txapelketa mugimendu bizia dago ezta?

Bai, Orio aldean, Bergaran... Usurbilen oraindik ez, baina bai prestatzen dituzte. Normalean Gipuzkoa mailako txapelketak.

Aitzagaren bueltan lagun talde bat osatu duzue.

Bai. Lau laguneko herriko hiru bat talde gaude. Txapelketak beti Aitzagan izaten dira, online bidez. Bi kamera daude; bat lehiakideoi enfokatzen eta bestea dianari. Konektatu eta hortxe ibiltzen gara gure tabernan Madrilgo edo beste lekuetako



Partida baten zain dira. Dani Fernandezek azaldu digunez, partida hori irabaziz gero "Kroaziara bidaia bat eskuratuko dugu".

DARDOAK

"Iaz Albacetera mugitu ginen. Penintsulako txapelketarako sailkatu eta hara joateko aukera eman ziguten"

jendearekin lehiatzen. Online bidez eta koadranteetan sartu eta aurrera. Beraiekin hitz egin noiz geratu; eguna eta ordua finkatu eta lehiatzen gara.

Fisikoki Aitzagatik mugitu gabe.

Bai. Iaz Albacetera mugitu ginen. Penintsulako txapelketarako sailkatu eta hara joateko aukera eman ziguten.

Emaitza onekin zabiltzate beraz.

Oraintxe beste baten zain gaude. Finala dugu eta irabaziz gero Kroaziara goaz. Hasieran ligaxka bat zen. Lehen bi postuetan sailkatu ginen. Besteak Madrilekoak dira eta ezin dute

makina hartu, Covid-19ak eragindako egoeragatik. Esperoan gara. Irabaziz gero, bidaia bat eskuratuko dugu Kroaziara.

Pozik beraz orain arteko ibilbidearekin.

Gustura. Halako gehiago egitea espero dugu.

Kanpotik begiratuta, dardo-jokoa kirol jardueratzat jotzen duzue?

Jendeak barre egiten du baina nik kirol bezala hartzen dut. "Taberna kirola" kontsiderazioa du.

Zeintzuk dira jarduera honen berezitasunak?

Normalean hamaika partida izaten dira. Sei partida 501era. 501eko puntuazioarekin hasi eta 0an bukatu behar da. Eta 0an bukatzeko bikoitza edo hirukoitzarekin itxi behar duzu.

Beste 5 partidak "cricket"-ak izaten dira, bi biren kontra. Eta hor 20, 19, 18, 17, 16, 15 eta diana hartzen dira kontuan.

Horiek denak hirutan ukitu behar dituzu, biek irabazteko.

Kirol jarduera honetan zer nolako bidea jorratu nahi zenuke?

Orain artekoa. Ez da hortaz biziko garen jarduera bat. Denborapasa bezala hartzen dugu.

Lagun arteko kirol jarduera bat da ezta?

Denok bildu, afari bat egin horren aitzakiapean... Ostiral gauetan eta osteguneko poteoan aritu izan gara. Eta hortik aurrera ahal izan den guztietan.

Hiru talde bazarete Usurbilen. Pixkanaka zaletasun hau erroztzen ari da herrian?

Geroz eta gazte gehiago dabil-tza. Txapelketak agian hainbeste ez, baina pixkanaka ari da. Herria ere gure finala ikusteko zain da. Gazte guztiak galdezka ditugu uneoro.

Dardoek zer dute zuentzat beste kirol jarduera batek ez duenik?

Lasaiagoa da azkenean, ez zara nekatzen, lagunekin zaudete eta punteria fintzen duzu.

Lehiatzeko prest dagoen inor egonez gero, zer egin dezake?

Aitzagara etorri. Normalean Aitzagan txapelketen kartelak jarriak egoten dira. Usurbilgo kideon whatsapppeko taldea dugu eta horra bidaltzen dituzte baita txapelketen deialdiak. Gurekin ibili nahi duenak ongi-gietorria izango da.


ADA
-MASAJEAK-
633 36 22 33
erreka-txiki 1, USURBIL



Kima
MASAJE LUKUA
·KIROL MASAJEA · MASAJE TERAPEUTIKOA
Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97


Otar-Goxo
ELIKAGAIAK
Zubiaurrenea, nº2
☎ 943 36 55 81
20170 Usurbil

Kultur astea 1620ko Nafarroaren loraldiaz

Gai honen bueltan, hitzaldiak, ondoko argazkian duzuen erakusketa edota “1620 Nafarroa beheregaina” antzezlanaren antolatzen duen Nafartarrak taldeak. Bizitzako eremu guztietan bezala, ekitaldi sorta honi ere eragin dio Covid-19ak. Mikel Markez eta Erramun Martikorenaren emanaldia bertan behera utzi behar izan zuten. Ipar Euskal Herria konfinatua dago eta Martikorena Usurbila etorri ezinik geratu zen.

Igandean Kale Barrokaren antzerki emanaldia zegoen iragarririk Sutegin, “baina partaide baten ezintasunagatik Asisko Urmenetak eman zuten hitzaldi-solasaldi antzeko bat”, Iñaki Agirresarobek aditzera eman digunez. “1620. urtearen garrantzia azpimarratu zuen batez ere Nafarroako eta euskaldunon azken lurralde independente eta subiranoa kendu zigute-



Asisko Urmeneta igandean izan zen Sutegin. Argazkia: Iñaki Agirresarobe.

lako”. Agirresaroberen esanetan, Asisko Urmenetak “grafikoki ongi adierazi zuen” adierazi beharrekoa, “eta hurrengo batean egoera hobean antzezte guztiakin dagokion antzerki emanaldia izango dela” iragarri zuen.

“Lemoiz gelditu” artelana jendaurrean ikusgai

Bilboko Arte Ederren museoko 32. aretoan jendaurrean ikusgai izango da “Lemoiz gelditu” izeneko horma-irudia otsailaren 1era arte.

Albisteak lotura zuzena du udalerriri honekin. Vicente Ameztoy eta Usurbilgo bi artistek elkarlanean sortu baitzuten duela 40 urte; Jose Luis Zumetak eta Karlos Zabala “Arrastalu”-k, 1980ko azaroaren 8an eta 9an Bilboko Nazioarteko Azokan zentral nuklearra geldiarazteko antolatzen ziren herri topaketetan. “Antolatzaileek Vicente Ameztoy, Jose Luis Zumeta eta Carlos Zabala “Arrastalu”



Horma-irudia Vicente Ameztoy, Jose Luis Zumeta eta Carlos Zabala Arrastalu-ren artean osatu zuten 1980an.

margolariak gonbidatu zituzten parte hartzera, horma-irudi bat zuzenean egiteko. Horrela, aldazio bat erabiliz eta ikusleen aurrean, hiru artistek berriaz *Lemoiz gelditu* izenburua duen lan hau margotu zuten”.

“Udazkena bizi”, liburutegian

Azaroak 11, asteazkena

■ 19:00 Harkaitz Canok idatzitako “Enseres de ortopedia inútil” kontakizun laburren liburuari buruzko solasaldia Sutegiko auditorioan, idazlea bertan dela eta Ana Merino herritarrak gidatuta.

■ Sarrera-kopurua: mugatua.
■ Izen ematea: aurrez liburutegian (943 360692).

Azaroak 17, asteartea

■ 18:00 Ibon Martin, “Onin” sailaren idazlearekin solasaldia Sutegiko auditorioan.

■ Nori zuzendua: 8 urtetik gorako haurrentzat.

■ Sarrerak: doan usurbilkultura.eus atarian eskuragarri, azaroaren 15era arte.

■ Edukiera: 78 pertsona.

■ Antolatzailea: Sutegi udal liburutegia.

‘Andatza: errotarriak, mugarriak eta aztarna geologikoak’ jardunaldiak

Aurkikuntza ugari izan dira Andatzen azken urteetan. “Batetik, errotarrien eta mugarrien azterlana amaitu berri dute Joseba Peñak, Javi Castrok eta Asier Agirresarobek. Bestetik, hainbat dira Aranzadi Zientzia Elkarteak egindako indusketak, eta aurkikuntza berriak egin dituzte, haiek ere, azken urtean”, diote udal iturriek. Jardunaldiak datorren astean hasiko dira:

■ Azaroak 19: Txangosta eta Irigain. Sutegiko auditorioan, 18:30ean.



Aurkikuntza berriak egin dituzte Andatzen. Argazkia: Udala.

ETXEBIZITZA**Salgai**

91m² pisua salgai Txaramunto kalean. 3 logela, sukaldea, 2 komun, egongela. 11m² terraza, 8m² trasteleku, 24m² garajea erosteko aukera. 678949958.

Etxebizitza salgai Kalezarren: 79m² berritua, 2 gela, komuna, sukaldea, jangela, egongela, harrera. Dena kanpoaldera. Ganbara handia partekatua. 35m² garajea aukeran. 686462705

Etxebizitza salgai Santuenean: 2 gela, sukalde handia, egongela, komuna, bi balkoi, egongela. Argitsua, dena kanpoaldera. Etxeko eta komunitateko obra guztiak eginak. Trasteleku pribatua portalean. 677471648

Alokairuan

Alokatzeko etxe baten bila ari naiz. Bi pertsona gara eta txakurra daukagu. 675189500

Alokatzeko etxe baten bila ari naiz. Bi pertsona gara eta txakurra daukagu. 675189500

Usurbilen, kaxkoan eta inguruan pisu bat alokatu nahiko nuke. Txakurra daukat. Hilaren 1ean ordaintzeko konpromisoa. 661115222.

MOTORRA**Salmenta,
garajeak**

Nissan Note 1600 gasolina ko-txea daukat salgai, GRD matrikuladuna. 634416863

Volkswagen "escarabajo" bat saltzen dugu. Kotxe klasikoa baina oso egoera onean dago. 656704299.

Santuenea auzoan trastero txiki baten bila nabil. 626 735 354

Kale Nagusian garaje bat salgai. Ez da garaje itxia. Prezioa negoziagarria. 667336405.

LANPOSTUAK**Lan eskaintzak**

Game Masterra behar dugu Quantum Escape Room-en. Gaztea bazara, eta jokoak nahiz ihes gelak gustatzen bazaizkizu bidali CV info@quantum.eus helbidera

Usurbilgo neska edo mutil bat behar dugu, ingeleseko klase partikularrak emateko. 608201745

Txiribogan asteburuetarako lan-gileak behar dira. Interesatuok hona deitu: 629 951 931.

Sukaldari laguntzaile bat behar dugu Lukainategi erretegian. 680 483 164

Zerbitzaria behar da Lasarteko taberna baterako. Interesatuak deitu telefono honetara: 607110365.

LANPOSTUAK**Lan eskaerak**

24 urteko neska gaztea. Arratsalde umeak zaintzeko eskeintzen da. 695617001

Emakume usurbildarra naiz eta lan bila nabil, umeak zaintzeko edo etxekolanak egiteko. 627184674.

Ingeleseko irakaslea naiz baina bestelako lanak egiteko ere prest dagoen emakumea naiz. Etxeko lanak, umeen zaintza edo heldue-
na. 631746521.

Pertsona helduak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. Interesatuak deitu: 631 489 128.

Astelehenerik ostiralera orduka, pertsona helduak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. 631157290.

Pertsona helduak zaintzeko gizona eskaintzen da. Lanaldi osorako edo orduka lan egiteko prest... Esperientzia eta erreferentziak ditut 603595656.

Udan umeen zaintzaile lanetan edo klase partikularrak emateko prest nago Usurbilen. 648059422

Saio partikularrak emateko eskaintzen naiz (edozein adinetako

haurrei). Irakasle titulua dut eta iaz Ikastolan jardun nintzen klasea ematen. Ingelesez ere eman ditzaket saioak. 662127029.

Ekaina, uztaila eta abuztuaren haurren zaintzaile lanetan edo partikularreko irakasle gisa jardun nahi dut. Esperientzia zabala dut alor honetan. 688695958

Emakume bat etxeko lanak egiteko edo adinekoak zaintzeko prest. 664192760 / 722 48 39 94.

Esperientzia eta erreferentziak ditut. Etxeko lanak, pertsona helduak zein umeak zainduko nituzke, orduka zein egun osoz. 602830982

BESTELAKOAK

Zaldi bat salgai. 2013koa. Nurria. Domatua. Burukoa, arnasa eta eserlekuarekin. Informazio gehiago, telefono hauetan: Amaia 943341900 eta Joxan 699870308.

Alabak giltza batzuk galdu ditu, astelehen ostegun bitartean, Torre Eiffel duela giltza kate gisa. Topatu badituzu, hona deitu: 617002046

Batxilergo 1. eta 2. mailako matematika klase partikularrak emateko norbaiten bila nabil. Klaseak gure etxean izatea nahiko genuke. 649482775

Frantseseko klaseak ematen ditut udan, norberaren etxean. 600766068 Jokin

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patinetak, liburuak... Ataluko Garbigunean, doan hartu daitezke. Astelehenerik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00.

Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Bake Epaitegia.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Diputazioa - Basetxea.....	943 372 336	Amenabar botika (lehen Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta ..	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiarde Kirolegia.....	943 372 498	Kutxabank.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco SabadellGuipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkartea Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	692 898 492	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaua! Kultur Elkartea.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

**Zorionak lhintza!**

Azaroaren 15ean 10 urte egingo dituzu. Ahalik eta ondoen ospatu ezazu zure egun handiena. Muxu potoloak etxeko eta familien partez.

Heriotzak

**Kandida
Zubeldia Iribar**
Azaroaren 8an hil zen,
92 urterekin

**Goardiako farmaziak**

Osteguna 12 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Ostirala 13 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Larunbata 14 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Igandea 15 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Astelehena 16 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Asteartea 17 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Asteazkena 18 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Gainontzeko datak www.cfgipuzkoa.com web orrian dituzue ikusgai.

Osteguna 19 ORUE

Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Ostirala 20 DE MIGUEL

Kale Nagusia 32. Lasarte

Larunbata 21 ORUE

Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Igandea 22 ORUE

Jaizkibel plaza 2. Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak ireki-
ta egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
URRUTIA-MARTIN-HERNANI
Etxeberri auzoa, 1. Florida
943 55 77 38

Agenda azaroa

13 ostirala

- **Gozogintza tailer txikia.** 18:00etan Santuenea Elkartearen egoitzan (aurrez eman behar zen izena).
- **NOAUA! Kulturaldia: "Urpekakariak" bertso antzerkia.** 18:00etan Sutegin. Sarre-
rak: aurrez 3 eurotan, Lizardin eta NOAUA!n.

14 larunbata

- **NOAUA! Peru Galbeteren filma eta kon-
tzertua.** 19:00etan Sutegin. Sarrerak: 6
euro Lizardin eta NOAUA!n aldeztatik.
NOAUA!ko bazkideek sarrera 4 eurotan, au-
rrez NOAUA!n erosia.

15 igandea

- **NOAUA! Oskar Alegriaren "Zumiriki"
filma eta solasaldia.** 18:00etan Sutegin.
Sarrerak: 6 euro Lizardin eta NOAUA!n aldeztatik.
NOAUA!ko bazkideek sarrera 4 eu-
rotan, aurrez NOAUA!n erosia.

Ostiral honetan, 'Urpekakariak' bertso antzerkia Sutegin

Galtzerdi eta Leotardo igerilekuan topo egin duten lagun bi dira. "Ur bazterrean erdi gogaituta daudela, bihurrikeria bat otuko zaie: zergatik ez hondoko tapoia aurkitu eta igerilekua hustu? Murgilaldian zehar etengabe egingo dute topo beren gorputzekin; bakoi-tzak berearekin nola, lagunarenarekin edo igerilekuko gainontzeko erabiltzailenekin: umeak, helduak, adinduak, aniztasun funtzionala duten igerilariak... Gogoeta txiki bat egiteko aukera emango die, modu sotil eta umoretsuan, ikuslerik txikiak beren gorputzei begira jarri eta aniztasunaz, sexualitateaz, genero-rolez... hausnartuko dute".



6-11 urteko gazteei zuzendua dago ikuskizuna.

Urpekakariak bertso-antzerkia

- Azaroak 13 ostirala, 18:00etan Sutegin.
- Nori zuzendua: 6-11 urtekoentzat.
- Sarrerak: aurrez 3 eurotan, Lizardin eta NOAUA! K.E.-ren egoitzan.
- Antolatzailea: NOAUA! K.E.

Basoaren etorkizunaz hausnartzeko hitzaldia

Euskal Herriko basoen egungo egoera ulertzeko hitzordu aproposa antolatu du Alkartasuna Kooperatibak azaroaren 18rako 18:00etan Potxoenean; Iñaki Etxebeste eta Markel Arriolabengoa Martinarena (Errez Koop. Elk. Txikia) hizlari izango dituen "basoaren etorkizuna. Pinudiaren geroa eta basogintza eredu berriak". Ekitaldira joateko aurrez eman beharko da izena, azaroaren 16a baino lehen usurbilkultura.eus atarian. 19 lagunentzako lekua egongo da.

"Gaur egun Euskal Herriko basoek bizi duten egoera ulertzen saiatuko gara, krisi honen oinarrien inguruko analisi bat egingez. Horretarako, zenbait galdera mahai-gaineratuko ditugu: nolakoa izan da gurean basogintzaren bilakaera? Zer egin da orain arte? Zertan dihardugu orain? Eta zer egin dezakegu hemendik aurrera? Basogintzak etorkizunik baduela erakutsi nahi dugu; badela esperantzarik, eta denoi dagokigula, hemen eta orain, ibilbide berria marraztea", aurreratu dute antolatzaileek.

Datozenak

Maria Jesus Etxeberriaren erakusketa

Lehendik ere argazkiak ikusgai jarri izan ditu Maria Jesus Etxeberriak. Oraingoan bere margolanak ezagutzeko aukera izango da azaroaren 16tik 26ra, arratsalde, 16:30-18:30 artean, Sutegiko erakustaretoan.

Andatzako aurkikuntza arkeologikoen inguruko aurkezpena

Azaroaren 19rako du iragarria aurkezpena Udalak, arratsaldeko 18:30ean Sutegiko auditorioan. Sarrera doakoa izango da baina aurrez eman beharko da izena usurbilkultura.eus atarian.

Mugikorren erabilpenari buruzko hitzaldia

Azaroaren 24rako antolatu du solasaldia Hitz Aho Udarregi Ikastolako guraso elkarteak, arratsaldeko 17:00etan ikastolako jangelan. Bidelagun Elkarteak bideratuko du saioa. Adi ordea, azaroaren 20a baino lehen eman beharko da izena, usurbilkultura.eus atarian. 68 pertsonentzako lekua egongo da.

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

txirriStra
TABERNA

- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Patria
latorrea

- bazkariak EGUNERO
- afariak. ostegunetik larunbatera

© 943 362725 · © 688 690 361

ORDUTEGI ALDAKETA

BERTSO ANTZERKIA **Urpekariak**

azaroak 13, **OSTIRALA**, 18:00 Sutegi **SARRERAREKIN**
haur eta gaztetxoentzat (6-11 urte)

KONTZERTUA **Anari, Malen&Maddi**

azaroak 20, **OSTIRALA**, ~~20:00~~ 19:00 Sutegi **SARRERAREKIN**

KONTZERTUA ETA FILMA **Peru Galbete**

azaroak 14, **LARUNBATA**, ~~20:00~~ 19:00 Sutegi **SARRERAREKIN**

DANTZA **Korrontzi Dantzan +**

ORBELDI dantza taldearekin

azaroak 21, **LARUNBATA**, bi saio ~~18:00~~ 17:30 eta ~~20:00~~ 19:30 Sutegi **SARRERAREKIN**

FILM ETA SOLASALDIA **Oskar Alegriaren Zumiriki**

azaroak 15, **IGANDEA**, 18:00 Sutegi **SARRERAREKIN**

ANTZERKIA **Fadoak entzuten zituen gizona**

azaroak 22, **IGANDEA**, 18:00 Sutegi **SARRERAREKIN**

Sarrerak: Lizardi eta Noauan aldez aurretik. Bazkideek prezio berezian eskuratu ahal izango dute sarrera bat Noauako egoitzan



NOAUA!KO KULTURALDIA 2020

USURBIL AZAROA





Ofizioen Gida



PLAKODUR

Eskaiola eta Pladurra

943 00 85 44 - 634 45 78 78



URDAINTZI

eraikuntzak



649 43 54 75 / 76

943 36 72 64

urdaintzi@euskalnet.net

· ERAIKUNTZAK · OBRAK
· BERRITZE LANAK

Josue Igeltseritza

Fax: 943 24 34 60
Atalzu pol. atalzu, 28
20170 - USURBIL

606 37 21 05

Igeltseritza orokorra

Uraitz, s.l.



Telefonia
693 059392

e-posta:
uraitz@uraitz.com

Geltoki Kalea 15 behe, Lasarte-Oria



· gremioen
koordinaketa
· berritze lanak
· sukaldeak
· komunak

943 530 337

607 119 313

errekatziki 7, USURBIL itzira@hotmail.es

IRUARKAITZ

ERAIKUNTZAK, S.L

· FATXADAK ETA TEILATUAK

· ERAIKUNTZAK · BARRUKO BERRIKUNTZAK

· URALITA KENTZEKO ENPRESA

BAIMENDUA

630 90 02 79 AGINAGA



GRUPO MONROY

BERRITZE ZERBITZU INTEGRALAK

628 45 78 39

reformasmonroy@hotmail.es

TXARAMUNTO 14, 2 C USURBIL



Antonio URRUZOLA

AROSZTEGIA

Tel/Fax: 943 376 415

Asteasuain Industrialdea, 3

BARRENETXE

Salsamendi Arregi, Iñaki

AROSZTEGIA

943 362 664

Barren Etxe kalea ZUBIETA



ZURGINTZA-SUKALDEAK
ALTZARI BEREZIAK

www.carpinteriaibargoen.aroztegi.net jribargoen@aroztegi.net

943 36 14 48 - 676 45 31 76

ARGILAN

INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

629 272 859

943 361 380

BORDA-BERRI 5, baxua USURBIL



antenas Telemar

943 55 33 99

info@antenastelemar.com

Elkano kalea 13, HERNANI

APARICIO

DEKORAZIOA ETA
PINTURA LANAK

Tel. 943 36 60 59 628 883 943

Puntapax, 3 - 3.B. 20170 USURBIL



Enrique Alonso

ITURGINTZA GASA-BEROKUNTZA

Oro har libratze-lanak

TB kamerakin hodi eta tximinien azterketa

BAIMENDUTAKO INSTALATZAILEA

659 675 283

Iñaki Iturgintza

BEROKUNTZA · GASA · AIRE EGOKITUA

ZORU BERO-EMALEA

ITURGINTZA · ENERGIA BERRITAGARRIAK

info@inakiturgintza.com - www.inakiturgintza.com

Tfnoa.: 600 024 825



TEL: 678 45 31 48 • 943 651 465
zuriarrainiturgintza@gmail.com

Rafa



· ITURGIN LAN OROKORRAK · DUTXAKO HANPARAK
· KOPINDATZAZKO GREHIOAK · KOMUNEROKO ALTZARIAK

Bordaberri kalea 1, 1 behe • @ 943 36 80 04

ANORGA TXIBI S.L.

KRISTALDEGIA

· komertzial instalazioak
· beira bikoitza · segurtasun beirak
· dutxa-itxiturak eta irristailuak

943 37 17 33 - 610 45 93 45

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA



· TRESNERIA ETA ERREMINTAK
· EGUR ETA AROZ-LANETARAKO HORNIDURA

suministrosmaiz.com (ONLINE DENDA ERE)
Ugaldea polig. 18, USURBIL 943 36 99 39